

## No más fraudes

---

JON IURREBASO ATUTXA :: 09/01/2019

Después de la firma del preámbulo del nuevo estatus o estatuto político para vascongadas, no podía venir sino otro movimiento de deriva

### **Iruzur gehiagorik ez!**

Estatus berriaren hitzaurrearekin edo Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako estatutu politikoaren sinadurarekin batera (Euskal Herriaren zatiketarik sortua eta horretan oinarritua), beste deriba-mugimendu bat gertatu da halaberrez. Ez ahaztu Euskal Herriak uko egin ziola estatutuari eta haren bitartez Espainiako diktadura burges diktadura bihurtu zela (monarkikoa eta parlamentarioa), penintsulako, kontinenteko eta nazioarteko kapitalaren aginduetara.

Atzera begiratuz gero, eta nahiz eta gatazka oraindik konpondu gabe egon, baten batzuek gure etsai espainiarraren alderdien legea onartu eta gatazka ondoko jokoan segitzeko hautua egin zuten, horrenbestez, gure etsaien ideia nagusiak oinarritzat hartu zituzten, alegia, “gatazkaren ondorioak” (konpondu gabeko gatazka izanik, diogu berriro ere), “biktimak” (lehenengo biktima Euskal Herria dela ahazturik, eta euskal herri langilearen etorkizuna eta biziraupena konpondu gabe egonik), “ez zen inoiz gertatu behar...” (gure herri langilearen eta gure hurkoen defentsan jardun besterik ez dugu egin, egiten eta egingo) eta abar. Izugarria da ... lortu nahi omen dutela entzutea, egia esan, ez dakigu zer den, baina, ustez, Euskal Herriaren “askapenaz” ari dira.

Oraingo Ezker Abertzale Ofizialari dagokionez, espainiar eta frantses sistemetan txertatzeko hari horrek EH Bilduko bozeramaileak adierazitako azken ideia, proposamena, ekimena eta *postureoa* ekarri dizkigu. Diogu, lehenik eta behin, zorigaiztoko adierazpena izan dela Euskal Herriarentzat, eta, bereziki, Euskal Herri Langilearentzat.

Laburbilduz, EH Bilduk, hurrengo hauteskunde orokorreari begira eta PP, Cs eta Vox-i aurre egite aldera, EAJtik CUPerako aliantza handia osatzeko proposamena egin du, bai eta, ondo jakin arren, Espainiak eta Frantziak Euskal Herriari uko egingo dioten aldarrikapena eta haiekin aliaturik dauden bazkideek borrokatuko ez dutena ere. Horretarako, nahaste-borraste erreformistaz baliatu izan da eta espainiar eta frantses estatuekiko menpetasuna erakusten du Euskal Herriaren etorkizunari dagokionez, gure okupatzaile eta esplotatzailearen legerian oinarriturik baitago. Horrez gain, nazio eta subjektu berezitu gisa ukatzen gaitu eta *per secula seculorum* baino gehiagotan errepresioa jasateko promesa egiten digu.

Hots, bizitzako une hauetan, Euskal Herriarentzat urrats kualitatibo eta estrategikotzat jotzen dugu sozialdemokrazia eusko-espainiarrarekin, katalanarekin eta galegoarekin elkartzea, era berean, euskal burgesiarekin, progresismo espainolistarekin, independentistak eta ezkerrekoak diren (?) sentsibilitateekin ere funtsezko lema bai “demokraziari” edo ez espainiar eskuinari edo halako zerbait delarik. Hau da, PSOE, adibidez, eta labur izatearren, bidelagun egokia izango da...

Agerikoa da klasearteko mugimendu horrek, burgesia eta sozialdemokrazia buru direla, ezin duela ezta urradurarik txikiena ere sortu etsaiaren horman, akats eta gorabehera ugariz osaturik badago ere. Bada, kapital handiak eta espainiar, frantses eta eusko-espainiar burgesiak onartzeko moduko beste mugimendu bat dugu hori, azken finean, praktikan ez baitute inongo arriskurik sortzen euren sisteman edo estatus quo-an.

Ez dago nazio eta gizarte askapenik Euskal Herri Langilearen oraingo eta etorkizuneko interesen aldeko bidetik kanpo. Bestalde, euskal sozialdemokraziak eta burgesiak (are gutxiago beste batzuek) ez dute inoiz haien interesen aurkako ezer egingo.

Ados gaude gauza batean, eta hor dago gakoa, bada, zer egin daiteke? Nola jokatu dezakegu? Norekin? Noiz? Ekiogun lanari! Modu apalean eta iradokizun gisa, ez dezagun loterian jokatu, lauri solik egokitu ohi baitzaie, eta oinak lurrean edukirik, pentsa dezagun elkarlanean jardungo dugula. Bihar ez baina lortu egingo dugu. Eraiki dezagun nazio eta gizarte askapenerako Euskal Mugimendu Sozialista eta Iraultzailea! Aurrera!

---

## **No más fraudes.**

Después de la firma del preámbulo del nuevo estatus o estatuto político para vascongadas, emanado y sustentado en la partición de Euskal Herria, no podía venir sino otro movimiento de deriva. Y no olvidemos que aquel estatuto (rechazado en Euskal Herria) transformó la dictadura española en una dictadura burguesa (en clave monárquica y parlamentaria) servil a los dictados del capital peninsular, continental e internacional.

Mirando un poco hacia atrás, algunos aceptaron la ley de partidos de nuestro enemigo español. Aceptaron seguir el juego post-conflicto (aún sin resolver) en base a las ideas fuerza de nuestros enemigos. Esto es, “consecuencias del conflicto” (irresuelto, repetimos), “víctimas” (obviando que la primera víctima es Euskal Herria, y estando sin resolver el futuro y supervivencia del PTV), “no tenía que haber ocurrido...” (Sólo hemos defendido, defendemos y defenderemos a nuestro pueblo trabajador y a nuestros semejantes), etc. Es terrible cuando se dice perseguir... en verdad, no sabemos qué, pero se supone que la “liberación” de Euskal Herria.

Y ese hilo de inserción en los sistemas español y francés del conjunto de la actual Izquierda Abertzale Oficial, nos conduce a la última idea, propuesta, iniciativa, posturo proclamada por el portavoz de EHBildu. De entrada decimos que es funesta para Euskal Herria y, sobre todo, para su Pueblo Trabajador Vasco.

Seremos breves. EHBildu pide una gran alianza electoral que incluya desde PNV a la CUP de cara a las próximas elecciones generales, para hacer frente al PP, Cs y Vox... y reclamando lo que sabe que España y Francia (y sus socios aliados no pelearán) negarán a Euskal Herria. Articula un galimatías reformista y siervo de los Estados español y francés con respecto al futuro de Euskal Herria, basado en la ley del que nos ocupa y explota y nos niega como nación, como sujeto diferenciado y nos promete represión *secula seculoron* no, lo siguiente.

Es decir, a estas alturas de la vida, articulamos como paso cualitativo estratégico para Euskal Herria, asociarnos con la social democracia vasco española, catalana, gallega, burguesía vasca, progresía españolista, alguna sensibilidad independentista y de izquierda (¿)... y el lema de fondo es algo así como “democracia” sí o derecha española no. Esto es, el PSOE, por ejemplo y por ser breves, es un buen compañero de fatigas...

Es evidente que ese movimiento interclasista y abanderado por la burguesía y por la socialdemocracia no puede ni siquiera arañar una pared enemiga por muchas impurezas y avatares que tenga en su composición. Es otro movimiento más que el gran capital y la burguesía española, francesa y vasco-española pueden aceptar pues al fin y al cabo, y en la práctica, nada de ello socava su sistema y estatus-quo.

No hay camino de liberación nacional y social fuera de los intereses actuales y futuros del Pueblo Trabajador Vasco. Jamás la socialdemocracia ni la burguesía vascas (aún menos otras) lucharán sino es por sus intereses.

Convenimos en que la madre del cordero es qué hacer, cómo hacer, con quién hacer y cuándo. Pongámonos manos a la obra y, modestamente, una sugerencia, no juguemos a la lotería pues sólo les toca a cuatro y, con los pies en el suelo, pensemos que entre todos y todas lo haremos. No mañana, pero lo conseguiremos. Por la construcción del Movimiento socialista revolucionario vasco de liberación nacional y social, adelante.

*La Haine*

---

<https://eh.lahaine.org/no-mas-fraudes>